

## 8-FUNTSEZKO ASOZIAZIOAK

Gure negozioaren funtsezko elkarteak ondorengoak dira:

- Etxeak eraikitzen dituzten konpainiekin asoziazioak, etxea eraikitzen hasten direnean, haiekin jarriko gara harremanetan gure produktua etxe berrietan instalatzeko.
- Komunak egiten dituzten konpainiekin asoziazioak, kasu honetan, komuna instalatu aurretik beraien bezeroari gure produktuaren berri emateko eta honen abantailak azaltzeko.
- Eraikuntza ekologikoak egiten dituztenekin ere mantenduko dugu kontaktua, gure produktuaren berri izan dezaten, horrela haien eraikinak geroz eta ekologikoago eta jasangarriagoak egiteko.
- Orokorrean gu arduratuko garen arren,garraio enpresa batekin asoziazioa egingo dugu,guretzat garraiatzeko ezinezkoak diren lehengai eta materialak gure tailarrera ekartzeko eta ondoren, gure produktua leku batetik bestera mugitzeko.
- Aldizkari ekologiko eta teknologikoekin bat egingo dugu, guru produktua ahalik eta azkarren gizartean zabaltzeko. Honela, etekinak izaten azkarrago hasiko garelako.

